BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBAO KIROLAK ERAKUNDEAK PRESTAKUNTZA EMANGO DIE BERE LANGILEEI, KIROLAREN BIDEZ KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEKO

- **Prestakuntza praktikoa da, kudeaketa inklusiboagoa sustatzeko eta Bilboko kirol-proiektuetan kulturarteko ikuspegia txertatzeko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzea ahalbidetuko duena.**
- **Prestakuntza urtean hiru ediziotan banatuko da 2023ra arte, Bilbao Kirolak erakundearen kudeaketan ardura-karguak dituzten langile guztiak prestatzeko helburuarekin.**
- **Edizio bakoitzean 10 prestakuntza-ordu emango dira, eta 20 pertsona inguruk hartuko dute parte. Aurtengo saioak azaroaren 18an hasiko dira eta abenduaren 1ean amaituko dira.**
- **Ekimen honek Bilboko Kirolaren Estrategiaren gizarte-ardatzari erantzuten dio.**

*(Bilbon, 2021eko urriaren 29an).-* Bilbao Kirolak-ek bere langileak prestatuko ditu erakundearen kudeaketan erantzukizun-karguak dauzkaten langileak, urian **kulturarteko bizikidetza bultzatzeko** kirolaren eta jarduera fisikoaren bidez.

Prestakuntza praktikoa da, kudeaketa inklusiboagoa sustatzeko eta Bilboko kirol-proiektuetan kulturarteko ikuspegia txertatzeko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzea ahalbidetuko duena. Horrela, bada, helburu hauek proposatzen dira:

- **Gogoeta kritikoa eragitea kultur dibertsitatea kudeatzeko ereduen inguruan** eta eredu horiek elkarbizitzan dauzkaten ondorioen eta murrizketa praktikoen inguruan.
- **Ezagutza** teoriko eta teknikoak eta estrategia eta baliabideak **eskaintzea kirolaren praktikan kulturartekotasunaren kudeaketarekin** zerikusia duten gaitasun profesionalak garatzeko.
- **Tresna praktikoak** ematea gizarte kohesioa eta kulturen arteko elkarbizitza errazten dituzten gizarte proiektuak sustatzeko.

Prestakuntza hiru ediziotan banatuko da (2021, 2022, eta 2023), Bilbao Kirolak erakundearen kudeaketan ardura-karguak dituzten langile guztiak prestatzeko helburuarekin.

Edizio bakoitzean 10 prestakuntza-ordu emango dira, eta 20 pertsona inguruk hartuko dute parte. Aurtengo saioak azaroaren 18an hasiko dira eta abenduaren 1ean amaituko dira.

**KIROLAREN GIZARTE-ARDATZA**

Ekimen honek Bilboko Kirolaren Estrategiaren gizarte-ardatzari erantzuten dio, 2024ra arte.

Ildo estrategiko horrek kirolak **pertsonen eta taldeen ongizatea handitzen** laguntzeko politika gisa duen gaitasuna azpimarratzen du.

Ardatz horren helburuen artean honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste: langileak kirolera aplikatutako kulturartekotasuna kudeatzeko ereduetan prestatzea, kirola egiteko eta bizimodu aktiboa izateko oztopoak murriztea eta ezabatzea, eta kirolean ekitate-irizpideak eta jarduera fisikoaren unibertsaltasuna txertatzea.

**SARE SOZIALAK:**

- **Bilbao Udala**: **FACEBOOK** | **TWITTER**
- **Bilbao Kirolak**: **FACEBOOK** | **TWITTER**

**#EmanKirolari #aktibazaitez**

# BILBAO KIROLAK FORMARÁ A SU PERSONAL PARA FAVORECER LA CONVIVENCIA INTERCULTURAL A TRAVÉS DEL DEPORTE

- **Se trata de una formación de carácter práctico que posibilitará la adquisición de habilidades y competencias para impulsar una gestión más inclusiva e incorporar el enfoque intercultural en los proyectos deportivos en Bilbao.**
- **La formación se repartirá en tres ediciones anuales hasta 2023, con el objetivo de formar a todo el personal con cargos de responsabilidad en la gestión Bilbao Kirolak.**
- **En cada edición se impartirán 10 horas de formación y participarán alrededor de 20 personas. Las sesiones de este año comenzarán el próximo 18 de noviembre y finalizarán el 1 de diciembre.**
- **Esta iniciativa responde al eje social de la Estrategia del Deporte en Bilbao.**

(*Bilbao, 29 de octubre 2021*).- Bilbao Kirolak formará a su personal con cargos de responsabilidad en la gestión de la entidad para **favorecer la convivencia intercultural** en la Villa, a través del deporte y la actividad física.

Se trata de una formación de carácter práctico que posibilitará la adquisición de habilidades y competencias para impulsar una gestión más inclusiva e incorporar el enfoque intercultural en los proyectos deportivos de la Villa. Así, se plantean los siguientes objetivos:

- **Promover una reflexión crítica sobre los distintos modelos de gestión de la diversidad cultural,** así como sobre las implicaciones y limitaciones prácticas que estos tienen en la convivencia.
- **Facilitar conocimientos** teórico, técnicas y recursos para el desarrollo profesional de competencias relacionadas con la **gestión de la interculuralidad en la práctica deportiva**.
- Facilitar **herramientas prácticas** para impulsar el diseño de proyectos deportivos que faciliten la cohesión social y la convivencia intercultural.

La formación se repartirá en tres ediciones anuales -2021, 2022 y 2023- con el objetivo de formar a todo el personal con cargos de responsabilidad en la gestión Bilbao Kirolak.

En cada edición se impartirán 10 horas de formación y participarán alrededor de 20 personas. Las sesiones de este año comenzarán el próximo 18 de noviembre y finalizarán el 1 de diciembre.

**EJE SOCIAL DEL DEPORTE**

Esta iniciativa responde al eje social de la Estrategia del Deporte en Bilbao hasta 2024. Esta línea estratégica remarca la capacidad del deporte como política para contribuir a **aumentar el bienestar de las personas y grupos**.

Entre los objetivos de este eje destaca, además de la formación de la plantilla en modelos de gestión de la interculturalidad aplicados al deporte, la reducción y eliminación de las barreras de acceso a la práctica deportiva y a estilos de vida activos y la incorporación de criterios de equidad en el deporte y universalidad de la actividad física, entre otros.

**REDES SOCIALES:**

- **Bilbao Udala**: **FACEBOOK** | **TWITTER**
- **Bilbao Kirolak**: **FACEBOOK** | **TWITTER**

**#EmanKirolari #aktibazaitez**